



Bertsozale Elkartearen Berripapera

 ESPAÑA	FRANKEO
	ITUNDUA
	FRANQUEO
	CONCERTADO
ZK/NRO 37000126	

Bertsozalea

www.bertsozale.com

2014ko AZAROA - 158. zenbakia

21.000 haur ari dira ikasgelan bertsolaritza lantzen transmisio proiektuaren baitan

2014/15 ikasturtea abian da eta eskola ordutan bertsolaritza lantzen hasita daude zazpi herrialdeetako 21.000 ikasle

24 urte dira Bertsozale Elkarteak eskaintzen duen "Bertsolaritza irakaskuntza" proiektua sortu zenetik. Gaur egun 410 ikastetxe dira partaide; zentro publikoak, ikastolak zein kristau eskolak daude horien artean, eta nagusiki Lehen Hezkuntzako 4., 5. edo 6. mailan gauzatzen da.

Bertsozale Elkarteko 38 irakaslek astero edo bi astez behingo maiztasunez, bertsolaritza klasea gidatzen dute ikasgelan, eskola ordutan. Proiektuaren oinarriak Bertsolaritzaren Curriculum eta 2011ko Ixaka Lopez-Mendizabal saria duen ikasmateriala dira.

Horrez gain, ikasturtean zehar egindako lana ikasgelatik ateratzeko, hainbat ekimen ere burutzen dira proiektuaren barruan: ikastetxeak elkartuta egiten diren jaialdiak zein kantaldiak, bertso bildumak, irratsaioak...

Herrialde guztietan lanean

Herrialde bakoitzean azpimarratzeko gorabehera hauek ekarri dizkigu ikasturte berriak:

- Gipuzkoan lau ikastetxe berri egin zaizkigu proiektuko partaide.

- Araban finantziario arazoak medio Añana eskualdeko 3 ikastetxeek utzi behar izan dute, eta Gasteizko 2 ikastetxe berri sartu dira ekimenean.

- Bizkaian 13 dira proiektuan sartu diren ikastetxe berriak.

- Iparraldean lehen mailako 25 ikastolatatik 24etara hedatzea lortu da.

- Nafarroan Hezkuntza Departamenduak finantzatzen zuen orain arte Nafarroako ikastetxe publikoetan bertsolaritza landu

ahal izateko proiektuaren zati handi bat, eta finantzazio hori kendu du 2014an. Hala ere, Nafarroan proiektua mantentzea soilik ez, 5 ikastetxe berritara ere iristea lortu da. Irakasleek, gurasoek eta udal zein mankomunitateek proiektuari dioten estimazioaren adierazle.



MAIALEN LUJANBIO Urepele, 2014-X-19

Gaia: Zer egiten dut nik bertsolarien gizarte matxista honetan?

Bertsolaritzan ta gizartean mila sasi, mila laino gure mundua gizonezkoen eremua zen gaurdaino. Ez dakit nere buruai hori esan ote diodan ño edo pentsatu ez dudalako iritsi naizen honaino.

Etsaitasunik ez dut hainbeste nik bertsolaritzarekin nahiz ta mundua bera bezala matxista badela jakin. Zer arraio egiten dudan nik zer edota nola egin? Ba nere alea jartzen saiatu hobea bihurtu dedin.

Iraganakin izan liteke pena edo arrangura bertsolaritza juzga liteke atzerakoian modura baina nik ere ezagutu nun lehengo bertso mundu hura ta zorionez denbora gutxin hau're asko aldatu da.



Eskolak ematearekin batera, bestelako hamaika ekimen egiten dira ikastetxeetan. //XDZ

F.C.BAIIENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xenpelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / posta-e: komunikazioa@bertsozale.com

Hilaren 15ean jokatuko da Xilabaren finala Baionan

Urriaren 4an abiatu zen Muskildin Xilaba txapelketa. Kanporaketak eta finalaurrekoak jokatu ostean, azaroaren 15ean jokatuko da finala. Baionako Lauga gelan da hitzordua, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Bertan, finalaurrekotatik sailkatu diren sei bertsolariak arituko dira kantuan: Sustrai Colina, Eneritz Zabaleta, Maddalen Arzallus, Odei Barroso, Ramuntxo Christy eta Xumai Murua. Aurkezle lanak Joana Itzainak egingo ditu.

Berrikuntza bat izango du aurtengo finalak, zendu berri den Aitor Renteria "Txato" bertsozale eta elkartekideari omen berezia egin nahi izan baitio Bertsularien Lagunak Elkarteak.

Horregatik, lehen aldiz "Txato saria, kantakera aberatsenaren saria" jarri dute martxan. Hiru kantari-bertsolarik izango dute sari berri hori erabakitzeko ardura: Pantxika Solorzano, Mixel Aire "Xalbador II" eta Jojo Bordagarai.

Txomin Ezponda izango da txapelkunari txapela jantziko diona. Dena den, Xilabako finala ere hainbat elkarte eta erakunderekin txapelketan zehar izan duten elkarlana nabarmentzeko baliatu nahi du Bertsularien Lagunak Elkarteak. Finalaren amaierako sarimete ekitaldia izango da elkarlan hori eskertzeko momentua. Txomin Ezpondaz eta Iñaki Murua Bertsozale Elkarteo lehendakariak gain, honako elkarteek ere emango dituzte sariak: Muskildi Bizi elkarte, Beltzuntze elkarte, Ote Lore elkarte eta Zabalik elkarte.

Sarrerak aurrez eros daitezke, 15 eurotan. Egun berean erosten badira, berriz, 18 eurokoa da prezioa. Elkarteko bazkideentzako

prezioa 12 eurokoa da eta 16 urtetik beherakoentzat 5 eurokoa. 10 urtetik beherakoek doan dute sartzea. Finalerako sarrerak salgai daude internetez www.bertsosarrerak.eu webgunean, baita Lapurdi, Baxenabarre, eta Xiberoko zenbait salmenta gunetan ere.

Xilabako finalaren zein sarreren salmentaren inguruko informazio osoa www.bertsozale.eus/xilaba webgunean aurkituko duzue.

Bizkaian, finalaurrekoak

Bizkaiko Bertsolari Txapelketan, berriz, finalaurrekoei ekingo diete azaroan. Hilaren 22an jokatuko da lehenengoa Etxebarran; 30ean bigarrena, Urdulizen eta abenduaren 7an azken finalaurrekoa jokatuko dute Amorebieta-Etxanon. Txapelketako finala abenduaren 20an izango da Bilboko Miribilla pilotalekuan, 17:30ean hasita. Finalaurrekoetarako zein finalerako sarrerak dagoeneko salgai daude www.bertsosarrerak.eu webgunean.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren inguruko informazio osoa www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa webgunean aurkituko duzue.



Baionako Lauga gelan jokatuko da Xilabako finala. // Adur Larrea. XDZ

Bertsolaritza ikertzeko proiektu sariak, Mikel Laboa Katedra eta Mintzola Fundazioaren eskutik

Master bukaerako lanak bertsolaritzaren ikerketara bideratzeko proiektu sarietarako deialdia egin dute Mintzola Fundazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Mikel Laboa Katedrak.

Nolanahi ere, ez dira masterreka mugatzen sariok. Masterrekoak izan gabe, edozeinek egin dezakeen bertsolaritzari buruzko ikerketa ere saritzeko balioko dute, betiere, ikerketa proiektu hori unibertsitateko irakasle batek zuzendua izango bada.

Ikerketa proiektu sarien helburua da ikertzaileak etorkizun hurbilean bertsolaritzari buruzko ikerketa sakondu nahia sustatzea eta saritutako bertsolaritzari buruzko ikerketak doktore tesi baterako proiektu bilakatzea.

Sari bakoitza 2.000 eurokoa izango da. Eta proiektuak Mintzolan aurkezteko epea azaroaren 17ra artekoa izango da. Azaroaren 28an emango dituzte 3 sarituen izenak. Sarituek 2015eko ekainaren 15a baino lehen aurkeztuko beharko dituzte lanak.

Xehetasun guztiak www.mintzola.com eta <http://www.ehu.es/laboakatedra> webguneetan aurkituko dituzue.



Mintzolako eta Mikel Laboa katedrako ordezkariak, aurkezpenean.//XDZ

Durangoko Azokako Saguganbaran hartuko du parte Mintzola Fundazioak

Abenduaren 5etik 8ra egingo da Durangoko Azoka. Bertsolaritzak tarte nabarmena izango du aurtengoan. Bertsozale Elkartean zein Lankuren postua egongo da, baina horrez gain bertsolaritzarekin lotutako hainbat ekimen egingo dituzte haur eta gaztetxoei zuzendutako Berbaro elkarteak kudeatzen duen Saguganbara gunean. Mintzola Fundazioaren eskutik, jarduera ugari antolatu dituzte egun horietarako.

Honakoa da Saguganbaran prestatu duten egitaraua:

Abenduak 5, ikasle eguna. Areto Nagusia

- "Gu ere sortzaile". Ordubeteko hiru tailer izango dira, 10-12 urteko gaztetxoei zuzenduta. Kantu bat sortu eta grabatuko da. Tailer hauek Oskar Estanga bertsolari eta musikariak gidatuko ditu.

Abenduak 6. Areto txikia

- "Ipuinak bertsotan". Ipuin bat sortuko dute eta gero ipuina bertsotan jarri. Tailer hauek Nerea Elustondo bertsolariak gidatuko ditu.
- "Inpro Matx gaztea". Jolasa, sormena eta irudimenean oinarrituta antzerki hizkuntzan gaiei erantzuna aurkitzea. Eñaut Gantxegi antzerkilaria izango da arduraduna.

Ikuskizunak. Areto nagusia.

- Abenduak 6: "Bertso saioa". Gaiak prestatu eta bertso saioa gidatu. 6-9 urteko umeentzako, Itxaso Paiaren ardurapean.
- Abenduak 7: "Kulunkantauri k@ntakizuna". Hitzen jolasarekin haurrak ipuin eta bertso mundura hurbitzeko Ibai Esoain bertsolariaren emankizuna.
- Abenduak 8: "Egunik garrantzitsuena" 0-3 urteko umeentzako ipuin saio honetan, Begoña "alabazan"-ek haurrentzako ipuin saioa gidatzen du, haurren 5 zentzumenak sustatuz, abestia eta musika lagun dituelarik.



SAGUGANBARA
TXIKIEN eta HANDIEN GUNEA



Puntua jarrita

AINHOA ARANBURU

Nola helarazi bertsoaren pozima gure gaztetxoak euskararekin maitemintzeko? izan zen Oskarrek botatako puntua. Aspalditik euskararekin larrutan egiten duten euskaldun berri helduekin aritzen naiz lanean, beraz ezingo diot zure galderari xuxen erantzun. Baina arrazoi duzu, bertsoak badu hizkuntzarekiko harremana aldaraz dezakeen zer berezko bat. Eta euskaldun berrietan lortzen den aldaketa horrek badu magiatic apur bat. Pozima hitza egoki erabilia da hor.

Orain zazpi urte ireki genuen euskaldun berrientzako bertso eskola eta bertan hiru urte egin dituen Alfred Ludwig ikaslearen hitzek nireek baino argiago eta zuzenago azalduko dute magia horren indarra.

Gure burua gai ikusten ez dugunontzat. Alfred Ludwig

Euskaldun berria naiz. Jaiotzez madrildarra, aita austriarra dut eta Austrian eman nuen ikasketara garaia. Gure ama Euskal Herrikoa da, baina ez daki euskaraz eta nik oporrak erabili behar izan nituen euskara ikasteko.

Bertsolaritzarekin izan nuen lehen kontaktuak erabat hunkituta utzi ninduen. Nola zen posible pertsona batek hain lan polita egitea? Nola bururatu zitzaizkion hain argudio finak? Nola josi zituen neurri eta erima egokietan hain segundo gutxitan? Garai hartan zientziak baino ez nituen buruan eta letrekin zerikusia zuen guztia mesprezatzen nuen. Mundu-ikuspegi osoa aldatu zidaten bertsolariek.

Duela hiru urte etorri nintzen Euskal Herrira eta bertsoez gehiago ikasteko gogoia nuen. Ez nintzen ausartzen, nire euskara maila apalegia zela uste bainuen. Orduan lagun batek bertso ikastaro bat egin zuela esan zidan. Hurrengo urtean izena ematea erabaki nuen.

Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko ikastaroa euskaldun berrientzat espreski erabita dago. Ni horietako bat nintzen eta ikastaroko esperientzia guztiak paregabeak izan dira. Ez naiz ezertaz damutu. Oraindik ez gara maisuak. Hala ere, ikasle guztiok hasi ginen lehenengo klasetik bertsoak botatzen.

Izugarrizko gozamina da besteen mezua bertsoan entzutea edo zuk eman nahi duzun mezua bertsoz jostea. Noizean behin desafioak botatzen dizkiegu beste bertso eskola batzuei, edo haiek guri, eta ederki pasatzen dugu. Egia diotsuet: ez nukeen imajinatuko, hainbeste hunkitzen nauen hori noizbait neronek egiteko gai izango nintzela.


Iruñean aritzen gara euskaldun berriek bertsoekin larrutan. Donostiako Hizkuntza Eskola Ofizialean irakasle den Ainhoa Agirreazaldegiri jarriko diot puntua: Iruñean sortuak badu Donostian kabidarik? Eta Elbaren? Eta Bilbon? Irunen? Gasteizen?...

Koplak

Izeta sariketa jokatu da Nafarroan

Nafarroako bertsolari gazteei zuzendutako Mariano Izeta sariketaren edizio berri bat egingo da azaroan. Herrialdeko 18 bertsolarik eman dute izena eta hiru kanporaketa eta finala jokatu dira. Azaroaren 14an izango dira kanporaketak eta astebete beranduago, azaroaren 21ean, jokatu da finala Elizondon, sei bertsolarirekin.

Poto-Finixa




Bertsolaritzako emakumeen III topaketa egin zuten Artaunson

Bertsozale Elkarte

Negulekuetan izena emateko epea, zabalik

Aurten lehenengo aldiz 15 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduriko negulekuak antolatuta ditugu elkarlanean Ikastolen Elkarteak eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak. Urtarrilaren 2tik 4ra izango dira Muxikako Gorozika auzoan. Izena emateko epea zabalik dago azaroaren 24a arte. www.bertsozale.eus webgunean aurkituko duzue informazio osoa.



GARAI HURA GARA



Emanaldi berria!
www.lanku.com